



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Asteazkena
2008-06-18**

VIURTEA 1.463.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

Jexuxmari Ormaetxea garaile bigarren saioan

ORENDAIN Gipuzkoako Sega Txapelketako bigarren kanporaketa jokatu zuten igandean z



'Artea Eskolan' erakusketan ikusgai dauden lanetako batzuk. A. IMAZ

Artista txikiak euskal artista handietan oinarrituz

BERROBI San Andres eskolan, etzira arte izango da ikusgai 'Artea Eskolan' erakusketa 6

Nikolas Artola izan da I. Frontenis Txapelketaren irabazlea

BALIARRAIN Antolatzaileak «oso gustura» geratu dira; hurrengo urtean ere jarraipena izango du 5

Hondeamakina bat erre da eta kamioi batek kalteak jasan ditu

BELAUNTZA Ertzaintza ikertzen ari da nahita eragin zuten edo sutea berezkoa izan zen 3



Donostiako Fnac-en egin zute atzo Tolosandblues jaialdiaren aurkezpena. E. EZEIZA

LAU EGUNEZ BLUESAREN HIRIBURU BILAKATURIK

TOLOSA Hilaren 26tik 28ra izango da Tolosandblues jaialdia; Berrikuntza bezala, aurten film batekin emango diote hasiera 4



TOLOSA MOTOR, S.A.

San Esteban Auzoa, 14-A

20400 Tolosa (Gipuzkoa)

Tel: 943-850337 Fax: 943-852938

e-mail: tolosa@tolosa.redpeugeot.com

Bipper Berria





Jexumari Ormaetxea Urki ederki aritu zen igandeko jardunaldian, eta bera izan zen garaile. HITZA

Jexumari Ormaetxea izan da garaile bigarren saioan

Orendain » Gipuzkoako Segar Txapelketako bigarren kanporaketa jokatu zen igandean; honen ostean, 'Urki' da nagusi.

ERREDAKZIOA

Jexumari Ormaetxea Urki irabazi du Gipuzkoako Segar Txapelketako bigarren jardunaldia. Pasa den igandean, Orendainen jokatu zen norgehiagokan eskualdeko bost segalari lehiatu ziren. Belar berde eta astun samarraz zuten lehiakideek, eta euririk gabe jokatu zen saioa. Oso giro aproposa egin zuen segarako.

Bertako segalariak 178 kiloko aldeak kendu zion Arkaitz Arteaga bigarren sailkatu gazteari. Bestalde, 228,5 kiloko diferentzia ateratu zion Andoni Goikoetxeari eta 293koa Mikel Aranalderi. Azkena sailkatzen Garikoitz Etxeberria izan zen. Aipatutako kilo horien baitan daude ere segalari bakoitzari ezarri zitzaizkion penalizazioetako kiloak. Horri dagokionean, aipagarria izan da Arteaga segalaria, ez baitzuen penalizaziorik jaso, eta, gainera, igandekoan bigarren sailkatu zen.

Orendaingo bigarren jardunaldia, kilotara jokatu zen eta lehiari ziharduten bost segalari ordu erdiko lana egin zuten. Urki eta Goikoetxeak bosgarren sailari ekinda agortu zuten denbora. Lehen saila batera ebaki zuten Orma-

» GIPUZKOAKO SEGA TXAPELKETA

Bigarren jardunaldia

■ **Jexumari Ormaetxea Urki (Orendain)**. 2.105,5 kilo (penalizazio bat jaso zuen; +20 kilo). 10 puntu.

■ **Arkaitz Arteaga (Baliarrain)**. 1.927,5 kilo (penalizaziorik ez zuen jaso). 8 puntu.

■ **Andoni Goikoetxea (Gaztelu)**. 1.877 kilo (penalizazio bat jaso zuen; +20 kilo). 6 puntu.

■ **Mikel Aranalde (Gaztelu)**. 1.812,5 kilo (bi penalizazio jaso zituen; +40 kilo). 4 puntu.

■ **Garikoitz Etxeberria (Amasa)**. 1.684,5 kilo (bi penalizazio jaso zituen; +40 kilo). 2 puntu.

Sailkapen orokorra

■ **Jexumari Ormaetxea Urki (Orendain)**. 13 puntu.

■ **Andoni Goikoetxea (Gaztelu)**. 11 puntu.

■ **Arkaitz Arteaga (Baliarrain)**. 9 puntu.

■ **Mikel Aranalde (Gaztelu)**. 8 puntu.

■ **Garikoitz Etxeberria (Amasa)**. 4 puntu.

etxeak, Goikoetxeak eta Etxeberriak. Minutu erdira Aranaldek eta minutu eta 16 segundora Arteagak. Bigarren saila, berriz, Orendaingoak ebaki zuen azkarren, eta minutu eta 27 segundora Goikoetxeak. Hirugarren saila ere Urki ebaki

zuen azkarren (19:20), eta bigarren Goikoetxeak (20:14). Laugarren saila ebakita, Urki minutu bateko aldeak kendu dio Goikoetxeari.

Hirugarren jardunaldia igande honetan jokatuko da, Errezilgo Etumetan, 18:00etatik aurrera.



Orendaingo belazeetan jokatu zen txapelketako bigarren kanporaketa. HITZA



Tolosako hiru bikotek jokatu zuten larunbateko finalean. HITZA

Tolosakoak irabazle, Herriartekoan

ERREDAKZIOA

Zesta puntako Herriarteko Txapelketan Tolosakoak izan dira garaile. Joan den igandean jokatu ziren kadete, jubenil eta helduen arteko finalak. Aurrez-aurre, Tolosa eta Zumaiakoak izan ziren, eta dena, hiru partidetatik bi irabazi zituzten eskualdekoek.

Aste Santu ondoren hasi zen txapelketa, herrien arteko ligaxkarekin. Tolosakoak, sailkapen fasean ere lehendabiziko postuan geratu ziren, eta azkenik, garaipena erdietsiz amaitu dute txapelketa.

Donostiako Karmelo Balda pilotalekuan jokatu ziren partidak. Kadeteetan, Beñat Lopez eta Joseba Esnaolak osatzen zuten bikotea, eta 30-14ko emaitzarekin izan ziren garaile. Bigarrenean, hau da jubeniletan, Arkaitz Izagirre eta Julen Txelleria aritu ziren Zumaiakoen kontra. Hauek ere 35-21eko emaitzarekin, irabazle izan ziren. Azken norgehiagokan ez zuten horrenbesteko zorterik izan eskualdekoek Iñigo Orrantia eta Josu Trabazosek 21-35eko emaitzarekin galdu zuten.

Euskal Herriko Kantu Txapelketan hirugarren geratu dira eskualdekoak

Kultura » Arantza Goikoetxeundiak eta Marta Estangak osatutako bikotea izan zen Gipuzkoako saritu bakarra.

ERREDAKZIOA

Arantza Goikoetxeundia eta Marta Estanga hirugarren geratu dira Euskal Herriko Kantu Txapelketan. Bikotekako proban lehiatu ziren herenegun, Bilboko Arriaga Antzokian.

Marta Estanga tolosarra eta Arantza Goikoetxeundia lizar-tzarra abeslari bezala aurkeztu ziren finalean. Taldeko beste bi kide

lizartzarrak Garazi Esnaola, pianoarekin, eta Olatz Goikoetxeundia, akordeoiarekin, izan ziren. Bestalde, Oihane Sarasola ibartarrak ere parte hartu zuen txapelketan nahiz finalean, baina ez zen lehendabizikoaren artean sailkatu.

Antolatzaileen esanetan, maila ona eman zuten denek ere. Gipuzkoarrei dagokionean, «nahiko txukun» aritu baziren ere, eskualdekoak izan ziren saria jaso zuten bakarrak.

Sailkapenari dagokionean, bakarlarietan, Deiane Abajos (Araba) izan zen garaile, sortutako kantutak batekin. Bigarren Valerie Uhalde lapurtarra geratu zen. Sorkuntzaren sari berezia ere jaso zuen honek. Hirugarren, Iraide Bilbao bizkaitarra geratu zen, Haurra amaren sabelean kantuarrekin Bikotekako txapelketan, Olatz Goikoetxea eta Esti Olibares bizkaitarrak izan ziren garaile. Bigarren sarituak ere Bizkaia-koak izan ziren, Elisa Perotxena eta Iñaki Gerediain. Hirugarren berriz, lehen aipatu bezala, eskualdekoak izan ziren.

Taldeko norgehiagokan, Lutxianotarrak izan ziren irabazle, bigarren, Arratiako Autzintaldea sailkatu zen, eta azkenik, hirugarren saria, Arabako Jesus Obrero ikastetxeontzat izan zen.

Bai Euskarari Ziurtagiria
gu ziur gaude

ziurtagiarenekin
1.500 irudite bako bereziki

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

San Joan Areto Futbol Txapelketan izena emateko aukera zabalik

Tolosa » Bihar izango da izena emateko azken eguna; egutegia zehazteko zozketa etzi egingo dute, 19:30ean.

ERREDAKZIOA

Ekainaren 25, 26, 27 eta 28an jokatuko da XIX. San Joan Areto Futbol Txapelketa. Usabal kiroldegian izango da, eta lau maila desberdinetan lehiatuko dira: mutiletan 1998-1999an jaiok eta 1996-1997an jaiok eta nesketan 19989-1999an jaiok eta 1996-1997an jaiok.

Legorretatik Villabonara eta Leitza arteko herritarrek har dezakete parte txapelketa honetan. Tolosako Shanti kirolak dendan eman ahalko da izena, edo bestela 943 67 60 93 telefono zenbakira deituta. Horrerarako azken eguna bihar izango da.

Txapelketarako egutegia etzi zehaztuko da, Arsenal Kirol Elkartean egingo duten zozketan, 19:30ean.

Telefonoak

Larrialdiak. ((112))

OSASUNA.

Alegialdea. Osasun z.: 943 653212

Anoeta-Alkiza-Hernialde.

Medikua: 943 65 23 39

Asteasu. Medikua: 943 692423

Baliarrain. Medikua: 943 889003

Berastegi-Elduain.

Medikua: 943 683361

Bidegoian. Medikua: 943 681134

Ibarraldea. Osasun etxea: 943 672411

Ikaztegieta. Medikua: 943 653329

Irura. Osasun zentroa: 943 690720

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Orendain. Medikua: 943 655595

Orexa. Medikua: 943 682228

Tolosa.

Anbulatorioa, larrialdia: 943 461111

San Esteban: 943 006800

Gernikako arbola: 943 006900

Amarozko dispen.: 943 672637

Asuncion klinika: 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

DYA: 943 672536

Gurutzte Gorria: 943 674888

Villabona. Anbulat.: 943 006970

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 943 693930

GARRAIOAK.

Renfe: 902 24 02 02

Donostiako autobusa: 943 361740

Tolosalde bus: 943 650621

Leitzarar autob. 948 221015

Taxia: 943 670420

Taxia (Leitza): 608 873016

BESTERIK.

Ertzaintza: 943 538820

Tolosa-Udalzaingoa: 943 675858

Tolargi: 943 650016

Iurramendi egoitza: 943 670325

Tolosa gasa: 943 675320

Laskorain ikastolaren egunean giro aparta

TOLOSA » Igandean ospatu zuten Laskorain ikastolaren eguna, eta «izugarritzko giroa» izan zuten. Goizean Tolosan zehar bizikleta ibilaldia egin zuten, eta jarraian, gurasoek eramandako tortillak dastatu eta neska mutilak mailaka antolatutako jolasetan ibili ziren. Eguerdian, haur hezkuntzako enaldia euskal dantza tailerrekoen eta abesbatzaren emanaldiak izan ziren ikusgai. 980 lagun inguru elkartu ziren paella bazkaltzeko. Arratsaldean, jokuak eta puzgarriak izan zituzten, eta baita Un-sain anaien doinuak ere. HITZA



Ibarratik Belauntzarako bidean zegoen hondeamakina. ASIER IMAZ

Hondeamakina bat erre eta kamioi batek kalteak jasan ditu

Belauntza » Maiatzan Altuna eta Uria enpresaren konpresore makina erre zuten ezezagunek uraren depositu ondoan.

ASIER IMAZ

Jaurlaritzako Herrizaingoa Sailak agertu zuenez herenegun gauerdian inguruari norbaitek Ertzaintzara deitu zuen sute baten berri emanaz. Atzo hondeamakina erreta ikus zitekeen Ibaratik Berrobirako errepidearen aldamenean. Erretako makinaren ondoan «kalteak jasan zituen kamioi bat» aurkitzen zen.

Ertzaintzak bere aldetik «gertara ikertzen» ari zirela esan zuen, nahita emandakoa edo berezkoa izan zen jakiteko.

Altuna eta Uriari «sabotajea»

Azken hilabetean gertatu den bigarren sutea da herenegun gauerdikoa. Maiatzan Altuna eta Uria enpresaren konpresore makina bat erre zuten Belauntzako ur deposituan. Herenegunera arte sutearen ondorioak agerian aurkitzen ari diren langileen esanetan.

Ezezagunek Gara egunkarian bere gain hartu zuten maiatzean Altuna eta Uria enpresaren aurka egindako «sabotajea».

Altuna eta Uria enpresako langile batek aipatu zuenez, «trenaren kontua» izan daiteke erasoaren zergatia, izan ere, enpresa azpeltiarrak «Abiadura Handiko Trenaren proiektuan parte hartzen du» Gara-n agertutako berrien arabera, Belauntzan ur deposituaren inguruko lanetan dabilza.

Tolosaldeko igerilariak «bikain» Ordizian



Tolosaldeko Igeriketa Kirol Taldeko igerilariak. HITZA

ERREDAKZIOA

Eskolarteko Gipuzkoako Igeriketa Txapelketa eta alebin mailako Gipuzkoako Txapelketa jokatu berri ditu Ordizian, eta Tolosaldea IKTko igerilariak emaitza bikainak lortu dituzte, igerilari guztiek euren markak hobetu zituztelarik.

Eskolartekoan, Maria Muñoa Gipuzkoako txapeladun izan zen 200 estilo eran, eta zilarrezko domina lortu zuen 800 askean. Julen Lizasok 100 bizkarrezkoan hirugarren postua lortu zuen, eta 1.500 askean 21'00ko denbora egin zuen. Laura Gabirondok 200 bizkarrezkoan eta 400 estiloerabatu zuen parte, eta txapeladunorde geratu zen. Olatz Eizmendi ere oso ondo aritu zen 800eko proban eta 200 estilo eran. Jone Etxarri, An-

doni Mateos, Jorge Rodriguez eta Ander Juarrosek ere oso maila ona erakutsi zuten.

Alebin mailako Txapelketa Beñat Bidaola, Iñigo Areizaga, Hasiar Etxabarri, Jon Ander Aurkia, Unai Eraso, Iñigo Alkorta, Iker Azpiazu, Lerman Nieves, Xabier Muñagorri, Xabier Hidalgo, Erika Amundarain, Irene Zumarraga, Maider Alfonso eta Irune Alfonso hartu zuten parte oso maila ona erakutsiz.

Bestalde, Tolosaldea IKTtik adierazi dutenez, matrikula egiteko epea zabalik dago igeriketan hobetu nahi duten guztientzat. 667 63 17 42ra deitu behar da.

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Etxebizitza.** Tolosako Alde Zaharrean etxebizitza salgai. Merkea. Obra egin behar da. Interesatuek deitu 657 23 00 11 / 634 91 94 82 zenbakietara.





Atzo goizean, Donostiako Fnac-en aurkeztu zuten Tolosandblues jaialdiaren laugarren edizioa. ESTI EZEIZA

Ekainari amaiera emateko, blues doinuak nagusituko dira 27tik 29ra, Tolosan

Kultura » Berrikuntza gisa, Zine Forumarekin elkarlanean, film batekin emango diote hasiera Tolosandblues jaialdiari.

ESTI EZEIZA

Sanjoanak hastear badira ere, Tolosako Udalekoak hurrengo asteari begira ere ari dira dagoeneko. Izan ere, atzo goizean aurkeztu zuten hilaren 27tik 28ra ospatuko den Tolosandblues jaialdia. Aurtengoa 4. edizioa izango da, eta oraingo honetan ere, «taldeanari esker» prestatu dute egitaraua. Iñigo Martin arduratu da programazioaz eta jaialdia iragartzen duen kartela egiteaz berriz, Jon Gaztañaga. Bestalde, ekimenarekin bat egin dute Ezpeleta elkarte-koek eta Fronton kafetegikoek ere. Andoni Iturzaeta kultur zinego-

tzia ere atzo Fnac-en izan zen, ekimaren aurkezpenean, eta bere hitzetan, «Udalaren asmoa da orain arte, lau urte hauetan egindako lanari sendotasunez eustea». Hori dela eta, aurrera begira, luzera ere jarraitzea espero dutela azaldu zuen.

Hasteko, film bat

Oraingo honetan, berrikuntza gisa, film batekin emango diote hasiera Tolosandblues-i. Zine Klube-ko emanaldien amaierak eta Tolosandblues-en hasierak bat egingo dute.

Win Wedners-en *The soul of a man* filma prestatu dute hilaren 26rako. Hemen, zuzendariak bluesaren munduan sakratua eta profanoa denaren artean dagoen tentsio dramatikoak erakusten du, bere hiru artista gogokoenen musika eta bizitza aztertuz: Skip James, Blind Willie Johnson eta J. B.

Lenoir. Hein batean historikoa, eta beste hein batean alderdi pertsonalean sakontzailea den pelikula musikari eskainitako bizitza horiek nolakoak izan ziren erakusten du, dokumental gisa.

The Lazy Jumpers

Blues, Rhythm & Blues, Swing edota Boogie dira Bartzelonako talde honen errepertorioko oinarritzko osagaiak, soinu berri, propio eta originala sortzen duten betiko osagaiak. Taula gainera igotzean daukaten energiarekin nahastuz gero, esanahia ematen diote *live music* kontzeptuari.

2007ko apirilean, taldeak Californiako Mitch Woods piano-jotzailearen kolaborazioarekin grabatu zuen. Disko hori zuzenean grabatua da, eta bertan Mitch Woodsek bere karrera luzeko abesti batzuk itxura berrituta berreskuratu zituen.

» TOLOSANDBLUES

- **The soul of a man.** Wim Wendersen filma izango da ikusgai hilaren 26an, 19:15ean eta 21:45ean.
- **The Lazy Jumpers.** Hilaren 27an, 23:00etatik aurrera Fronton kafetegian izango dira entzungai.
- **Little Charlie and Nightcats.** Hilaren 28an 22:30etik aurrera Plaza Berrian eskainiko dute kontzertua.
- **Tres mil hombres.** Hilaren 28an, 00:30etik aurrera, Fronton kafetegian izango dira entzungai.

Little Charlie and the nightcats

Karte-ko talde garrantzitsuen edo handiena dela esan daiteke hauena. 30 urte baino gehiagoko bizitza eta bluesa duen taldea da hau. Little Charlie & The Nightcats taldearen erritmo eta mugimenduan oinarritutako bluesak lotura zuzena du katu-kontrapaseekin. «Musika itzulipurdia eta jauziak egiten dituzte, eta zutik erortzen dira beti»; etengabe ikasten dute, eta jotzen duten estilo ezberdinetan bizitza erlaxatuak dituztela dirudi.

30 urte inguru pasa dira Little Charlie Baty gitarra-jotzaileaketa Rick Estrin harmonika-joleak eta abeslariak beraien lehen taldea sortu zutenetik eta Chicagoko blues gogorra eta Texasako swing eta jazz-a berrasmatu eta rockabilly, proto-rock'n roll, swing jauziak Estrinen abestien letra originalekin nahastu zituztenetik, *Charlie Christian playing in Little Walter's band* izendatutako soinu kritikoa sortuz. Beraien disko berria, *Nine lives*, karrera ikusgarri honen bederatzigarren albuma da.

Little Charlie and the nightcats

Jazz, Blues, Soul, Funk, Reggae, Swing, Rhythm'n blues... joaz, afroamerikar musika ardatz duen laukotea da Madrilgo hau. Estilo beltzak fusioatu eta horren inguruan inprobisazioa egiten duen taldea da 3.000 hombres.

Urteetako esperientzia bizkar gainean daramate eta denbora horretan hainbat eskenatoki eta aretotan jo izan dute, baita Espainia eta Portugalpean dauden herrialdeetako jazz eta blues klubetan ere. Jaialdi haundi batzuetan ere aritu dira: Getxo eta Ibizako Jazz jaialdietan, Bejar hiriko blues jaialdian, Manzanares, Getafe, Fuenlabrada eta beste hainbatekotan ere.

Laburrak

Enon taldearen kontzertua gaur, Bonberenean

MUSIKA » Aste honetan, asteburuari aurre hartuz, gaur bertan 22:00etatik aurrera, Enon taldea ariko da Bonberenean. Enon taldea Amerikako Estatu Batuetatik dator haien azken lana aurkeztera, *Grass geysers... Carbon clouds* izeneko hain zuzen.

'Hor al zaude' lana ikusgai izango da etzi, Leidorren

ANTZERKIA » Aitzol Udal Euskaltegiaren 25. urteurreneko ospakizunei amaiera emateko, etzi, Kanpingags taldearen *Hor al zaude* antzezlan izango da ikusgai. Joseba Apaolazak zuzendutako eta Asier Hormaza nahiz Ainhoa Aierbek antzeztutako emanaldi hau Leidor aretoan izango da, 20:30etik aurrera.

Ikasturte amaitzeko kontzertua, Musika Eskolan

MUSIKA » Eduardo Moco-roa Udal Musika Eskolako ikasleen ikasturte bukaerako kontzertua izango da gaur. Emanaldia Musika Eskolako areto nagusian izango da, 19:30etik aurrera. Txirula, pianoa, saxofoia, biola, klarineta eta kontrabaxua entzun ahal izango dira, besteak beste.

Faustino Orbegozoko langileen elkarretaratzea

EKONOMIA » Greban dauden Faustino Orbegozoko langileek, furgoneta ibiltaria bidelagun dutela, Gipuzkoa guztian zehar, Diputazioaren Gizarte Politika pribatizazioa eta aldi berean, subrogazio eza salatzen dihardute. Hori dela eta, gaur 12:00etan elkarretaratzea egingo dute udaletxearen aurrean.

'Love and honor' izango da ikusgai, bihar, Leidorren

ZINEMA » Bihar, Zine Forumean Yohi Yamadaren *Love and honor* (Maitasuna eta ohorea) filma izango da ikusgai. Lehendabiziko saioa 19:15ean izango da, eta bigarrena, 21:45ean. Shinnojo Mimura samuraiaren inguruko filma da honakoa.

tolosaldeko hitza.

iragarki laburrak.com

zure-iragarkia tolosaldetik eta leitzaldetik euskal herrira

iragarki laburrak.com
euskaltegi iragarki laburren atona

Larunbatean antzerkia, eta gaur erakusketa

ERREDAKZIOA

Albizturren, *Ogirik gabe etorri zen semea* antzezlanak ikusteko aukera izango dute bertaratzen direnek. Larunbatean izango da 22:00etan, Kultur Etxean.

Komedia honetan ama batek unibertsitatean ikasten duen semearekin duen harremana kontatzen du bakarriketa bidez. Ama, birziklatzeko premia ikusten hasiko da. «Algara eta une hunkigarrien artean, gazteei eta helduei

egokitzen zaie, emanaldian bi mundu horien antzezpene egiten baita.

Gaur eskolan erakusketa

Gaur Albizturko eskolan, bertako ikasleen pintura erakusketa izango da ikusgai 18:00etatik 19:00etara bitarte. Margolari ospetsuak aztertzen aritu dira eta hauen zenbait margolan erreproduzitu dituzte. Eskolako ikasleek herritar guztiak gonbidatu nahi dituzte.

L Laburrak

Pilota eskolako afaria uztailaren 3an izango da

ALEGIA ● Alegiako Intxurre pilota eskolako denboraldi amaieran afaria egingo dute uztailaren 3an, osteguna, hain zuzen. Egun horretan eguraldi ona eginez gero, Kale-beherako parkean izango da eta bestela Intxurre Elkartearen. Afarira etortzeko pilota eskolakoek Alegiako Kultur eta Kirol Etxean eman behar dute izena.

Udan ere, pilotan ikasteko eta aritzeko aukera

ALEGIA ● Alegiako Intxurre pilota eskolako entrenamenduek jarraituko dute udan ere. Adin guztieta-koentzat hilaren 24ean hasi eta herriko festak bitartean pilota saioak egingo dira, asteartean eta ostegunetan 10:30etik 12:00etara. Guztientzat da irekia eta parte hartu nahi duenak izena eman behar du Kultur Etxean.

Joxe Antonio Jauregiren omenezko mendi ibilaldia

BALIARRAIN ● Urtero bezala, aurten ere baliarraindarrek mendi ibilaldi bat egingo dute datorren igandean. Honetan, Joxe Antonio Jauregi herritarra gogoratuko dute. Herri mugarrak eta basoak ikustera joango dira eta Joxe Antonioren omenez egindako monolitoan lore eskaintza egingo diote. 10:00etan abiatuko dira plazatik.

Loatzok musika eskolako emanaldia bihar izango da

ALTZO ● Altzoko Loatzok musika eskolako ikasleek bihar, Santa Barbara elizan emanaldia eskainiko dute. 19:00etan izango da Udalak eta Loatzok berak antolatutako saio hau. Bertan, gitarra, biolontxoko, pianoa, trikitixa eta ahotsa, beste artean, entzun ahal izango dira. Ondoren, Segoretxen afari merienda izango da.

Lazkao-Txiki musika eskolaren saioa, bihar

IKAZTEGIETA ● Bihar Ikaztegieta eskolako entrenamenduek jarraituko dute udan ere. Adin guztieta-koentzat hilaren 24ean hasi eta herriko festak bitartean pilota saioak egingo dira, asteartean eta ostegunetan 10:30etik 12:00etara. Guztientzat da irekia eta parte hartu nahi duenak izena eman behar du Kultur Etxean.

San Juan bezperan dantzatzeko entsegua

IKAZTEGIETA ● San Juan bezperan, hau da, astelehenean, suaren inguruan Ikaztegieta herritarrek dantzatzeko duten zortziko ikasteko saioa izango da etzi, hilaren 20an, hain zuzen ere. Dantzatzeko interesa dutenek, bertan azaldu beharko dute arratsaldean, 16:00etatik aurrera kiroldegiko gimnasioan.

I. Frontenis Txapelketan Artola izan da txapeliduna

Baliarrain » Antolatzaileek «balantze oso positiboa» egin dute eta datorren urtean berriz antolatuko dutela ziurra da.

NEREA URBIZU

Baliarrainen aurten banakako frontenis txapelketa antolatu dute eta finala igandean jokatu zuten. Bertan Nikolas Artola izan da txapeliduna, Mikel Goitiaren aurka jokatu. Aitor Aranburuk eta Antton Aranburu bere anaia 3. eta 4. postua lortu dute.

Hiru asteburutan zehar jokatu dute txapelketa Baliarrainen eta guztira 60 lagunek hartu dute parte. «Txapelketa arrakastatsua izan da, oso-oso pozik gaude eta balantze oso positiboa egin dugu arrazoi askorengatik», zioen Saroi Oyarbidek, antolatzaileetako bat, Aitor Aranbururekin batera. «Parte-hartzaileen kopuruarengatik, dena ondo atera delako, frontoia egoera oso onean zegoelako, espreski garbitu zutelako honetarako... Ez dugu kexarik».

«Harrera ona» izan du

«Harrera ona» izan du txapelketak eta eskertzeko hainbat babesle eta laguntzaile dituzte: babesleen artean Baliarraingo Udala, Zartagi



Txapelidunordea eta txapeliduna erdian, 3. eta 4. gelditu zirenekin. HITZA

jatetxe-aterpetxea, Aralar Kirolak, Dosges komunikazio grafikoa eta Elduaien Hizkuntza akademia daude, eta laguntzaileak berriz, hauek izan dira: Orbela eta Olosa tabernak, Sustrai, Insalus, Urbil etxegintzako materialak eta www.gurepoker.com.

Txapelketa jarraitu duten ikusleei, «eskerrak eman behar zaizkie ere», hauek gabe txapelketak txapelketa kutsu hori galtzen baitu. Jendeak giro oso ona jarri zuen, batez ere finalean». Dena den, jendea hiru asteburutan hurbildu da.

Datorren urtean bigarrena

Aurten lehen aldiz antolatu dute Banakako Frontenis Txapelketa, eta aurtengo arrakasta ikusita, datorren urtean ere antolatzea erabaki dute. Aurtengo helburu nagusiak, frontenisean aritzeko aukera izatea eta txapelketa bera antolatzeko izan dira. «Datorren urteari begira, helburu berria jende gehiago animatzea izango da». Neskei deialdi berezia egin nahi izan diete. Txapelketaren garaia mantendu egingo dute, hau da; maiatza eta ekainean zehar jokatu da.

Lasa, Euskadiko txapelidun

ERREDAKZIOA

Eneko Lasa alegiarrak asteburu honetan Gipuzkoako jubenil mailako izokinkideen euli modalitateko arrantzako txapela irabazi du. Igandean, Euskadikoan aurkeztu eta bertan ere txapelidun atera zen. Leitzarain ibaian jokatu zuen lehena eta Euskadiko, berriz, Araxesen bertan.

Joan den urteko Espainiako Txapelketan laugarren egiteagatik Eneko gaztea Portugalen izango diren mundialetan ariko da (Pena-

coban). Abuztuaren 3tik 10 izango da bertan. Irailaren 4ean eta 5ean berriz, Benasquen (Huesca, Espainia) ariko da Espainiako Txapelketan. Ondoren, 6ean, hain zuzen, datorren urteko mundialetan aritzeko txartela lortu ahal izango du berriz.

Hainbat sari jasotakoa

Eneko lasa alegiarrak 14 urte ditu eta txikitatik aritu da arrantzan eta bere bizitzan zehar hainbat sari lortu ditu.



Lasa, asteburuko une batean. HITZA

txokoa h

antzezlanerako
2 sarrera pare zozketan

Ostirala
ekainak 20 • 20:30ean
Tolosako Leidorren

**Hor
al zaude?**

HITZAren harpidedunentzat abantailak

Parte hartzeko, deitu goizez telefono zenbaki honetara: 943 65 56 95



Euskal arte garaikidearen museoa

Berrobi » San Andres eskolan euskal artisten lanak oinarritzat hartuta 2 urtetik 12 urte bitarteko ikasleen artelanekin erakusketa egin dute.

ASIER IMAZ

Arte Eskolan erakusketa zabalik dago Berrobiko San Andres eskolan. Etzira arte ikasleen artelanak ikusteko aukera egongo da 12:00etatik 13:00etara eta 17:30etik 18:30era. Bertara gerturatu nahi duen ororentzat atek

zabalik aurkitzen direla azaldu dute irakasleek. Hala eta guztiz ere, bihar goizean nahiz eta eskola zabalik egon, artistak inspirazio bila txangoan aurkituko dira. Ondorioz, erakusketa ikasleek egiten duten gidaritza lana arratsaldetan bakarrik egongo da.

Euskal Herriko arte garaikidea Arteari buruzko erakusketa Euskal Herriko arte garaikidean oinarritua dago. Artista ezberdinen lanak begiratu, ikasleek euren lanak egin dituzte, ondoren denon bistan erakusgai jartzeko. Euskal artistekin ere lan egin dute, biografiak landuaz edo eurekin elkar-tuaz; «artistekin harrituta gelditu gara. Oso eskuzabal jokatu dute gurekin, hona etorriaz edo euren tailerretara gonbidatuaz ikasleak. Eskerrak eman nahi genizkieke».

Egindako lan guztiarekin azkenik, marrazki, eskultura, biografia eta argazkiekin liburuxka bat ateratu dute.

Ikasle eta irakasleak gustura

Erakusketa 2 urtetik 12ra bitarteko haurren lanak aurkitzen dira. Txikienen marrazkietatik helduagoen eskulturretara.

Irakasleak eta ikasleak gustura ikusten dira egindako lanarekin, harrotasunez hitz egiten dute botatako izerdiaren fruituetaz hitz

egitean. Harridura zeinua ere maiz ikusten dira ormetan aurkitzen diren lanak aurkeztean.

Hala eta guztiz ere, benetako aurkezpen lanetaz ikasleak arduratzen dira erakusketa. Bertara gerturatzen direnei euren lanak erakustez gain gidari lanak egiten dituzte museo bateko langileak bailiran. Egindako lanarekin zerbait ikasi duten galdetuta, aho batez baietz esaten dute, batzuk bere aldetik «gehiegi» ikasi dutela ere onartzen dute.



Koldobika Jauregi artistaren taileraren egoteko aukera izan zuten Berrobiko Eskolako ikasleek. HITZA



Ikasleak aritzen dira giradi lanak egiten San Andres eskolako erakusketa. ASIER IMAZ



Euskal arte garaikidea oinarritzat hartuta egin dute lan Berrobiko artistek. A.I.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

Kultur asteburua antolatu dute ostiraletik astelehenera arte

Hernialde » Pailazoak, hitzaldiak, mahai inguruan elkartzeko aukera... hainbat ekitaldi antolatu dituzte lau egunetan zehar.

ERREDAKZIOA

Hernialden Kultur Asteburua antolatu dute ostiraletik hasi eta San Joan Bezpera arte. Haur zein helduei zuzendutako emanaldiak izango dira bertan.

Haurrek pailazoaren emanaldiak izango dute eta helduei zuzendutako bi hitzaldi izango dira, klima aldaketari eta AHTri buruz, hain zu-

» EGITARIAUA

Ekainak 20, etzi

■ **18:30.** Hipo eta Tomax pailazoak, Herriko Ostatuan.
■ **21:30.** Hitzaldia. Klima aldaketa eta horrek lurreen duen eragina. Udal liburutegian izango da solasaldia.

Ekainak 21, larunbata

■ **14:00.** Asto jatea frontoian, trikitaliek alaituta.

zen. Mahaiaren inguruan elkartzeko ere hainbat aukera izango dira. Horrela, asto jatea egingo dute larunbatean. Astelehenean zagi-ar-

Ekainak 22, igandea

■ **09:30.** Mendi ibilaldia. Ondoren hamaiketako elkartearen.
■ **18:30.** AHT-ri buruzko hitzaldia udal liburutegian. Ondoren Ostatuan luntxa. Jarraian bertso saioa Ostatuan.

Ekainak 23, astelehena

■ **20:00.** Zagi-ardoa.
■ **22:30.** San Joan sua.

doa jarriko du Udalak, bakoitzak bere janaria eraman beharko duetarik. Bestalde, argazki erakusketa bat izango da ikusgai Ostatuan.



Ahaldun nagusiaren bisita herrira

ZIZURKIL • Markel Olano ahaldun nagusiak bisita egin zuen Zizurkilera, Rafael Urribarren Landa Ingurunearen Garapeneko diputatuarekin batera. Marian Lazkano alkateak herrian zein proiektu egin nahi dituzten

azaldu zieten eta Zizurkil Beheko bariantea nabarmendu zuen, lehentasun bezala azaldu. Aipatutako beste gaien artean, Kultur Etxearen handitzea eta frontoia berritzea aipatu zituen. I. GARCIA



Ikasleen lanak ikusgai Gurean

VILLABONA • Kultur tailerreko ikasleen lanen erakusketak zabalik dago Gurea aretoko erakusgelan. Herenegun arratsaldean egin zuten inaugurazioa eta jende

ugari izan zen bertan. Hilaren 21era arte zabalik izango da erakusketak eta egunero egin daitezke bisita 17:00etatik 20:00etara. I. GARCIA

Laburrak

San Joan Gauerakoa afaria antolatu dute Txulobin

ADUNA • San Joan Gaueko afaria antolatu dute hilaren 23rako Adunan. 20:30ean sua piztuko dute eta gero afaria egingo dute, 21:00etan, Txulobi elkartearen. Hilduek 15 euro ordaindu beharko dute eta haurrek 5 euro. Uztartzan eman behar da izena afarirako eta horretarako azken eguna etzi izango da.

Liburutegia udan goizez irekita egongo da

ADUNA • Datorren astean udan sartuko gara eta, hil honen 23tik abuztuaren 22ra bitartean liburutegiaren ordutegia 11:00etatik 13:00etara izango da. Bestalde, abuztuaren 25etik irailaren 10a bitartean itxita izango dela jakinarazi dute liburutegitik.

Ongizate eta Ingurumena batzordearen bilera, gaur

AMEZKETA • Gizarte Ongizate eta Ingurumena batzordeak bilera egingo du gaur, 20:30ean, balionitzeko gelan. Nahi duenak parte hartu dezake bertan. Ondoko gaiak jorratuko dituzte bilera horretan: Aralargune Gastronomi Elkartearen eskaera idatzia; jubilatuen ibilaldiak eta lokala; EVE-Amezketako Udala: eguzki plakak jartzeko aukera aztertu; Tolosaldea Garatzen elkartearen partaide-tza; markesinaren beharra aztertu eta gai zerrendaren azken puntua herribideen erabilera eta egoerari buruz izandako kekek izango da.

San Joan Bezperako kantuen entsegua, bihar

ANOETA • San Joan Bezperako kantuen entsegua egingo dute bihar, 19:00etan, Anoetako Herri Ikastolan. Gero suaren inguruan abestuko dute hilaren 23an. Udaletik azaldu dutenez, deialdia irekia da eta nahi duen orok har dezake parte entseguan.

Arropa eta autozozketako irteerei buruzko bilera

IRURA • Kilometroak 2008ko antolakuntzatik azaldu dutenez, gaur, 19:00etan Irurako Ikastolako areto nagusian bilera egingo dute. Bertan, arropa eta autozozketako boletoa saltzeko irteeren egutegia osatuko dute. Deialdia zabalitzen dute ahal duten guztiak parte hartu dezaten bertan.

Jose Antonio Recondoren liburuaren aurkezpena

TOLOSA • Jose Antonio Recondok *Medicina y Beneficencia en Guipuzcoa y Tolosa. Siglos XIII-XX* izena duen liburuaren aurkezpena egingo du bihar. 20:15ean hasiko da ekitaldia eta udaletxeko batzar aretoan.

San Joan Bezperako dantzaren entsegua, bihar

ZIZURKIL • San Joan Bezperan egingo dute Pedro Mari Otaño eskolan, bihar, 19:00etan. Hilaren 23an Pasmus plazan piztuko dute sua, 22:30ean, eta ondoren egingo dute San Joan dantza.

Elbarrena festetako kartel lehiaketa abian dagoeneko

ZIZURKIL • Elbarrenako festetako kartel lehiaketa antolatu du Udalak. Edozeinek parte har dezake bertan. Lanak A4 tamainan aurkeztu beharko da, lau koloretara eta teknika librean erabili daitezke. Ondorengo testua azaldu beharko du testuan: «Zizurkilgo Jaia 2008, irailak 5-6-7-9-12-13». Lanak uztailaren 4a bain lehenago aurkeztu beharko dira udal bulegoetan.

'Tu carcel' dokumentala, etzi, Atxulondon

ZIZURKIL • Ekuadorretik Zizurkilera elkartruckerako hamabostaldiaren baitan dokumentala emango dute etzi arratsaldean. *Tu carcel* izena du eta bertan EAEko herrialde desberdinetara etorri diren familia ekuatoriar batzuen esperientzia kontatzen du. Emanaldia Atxulondoko kultur etxean izango da, 19:30ean.

Kantu kaleko eta haurren emeraldiko entsegua

ZIZURKIL • Festa Batzordeak antolatuta, kantu kaleko entsegua egingo dituzte uztaileko ostegun guztietan 19:00etan Atxulondoko kultur etxean. Festetan kantu kaleko lehenengo egunean izango da, irailaren 5ean. Entseguetan liburuxkak banatuko dira eta abestiak guztien artean aukeratu dituzte. Bestalde, haurren dantza emeraldiko entsegua uztailearen 22, 24 eta 29an egingo dituzte, 17:00etatik 18:30era Atxulondoko kultur etxean. Festetan ekitaldi hau urmen egunean izango da, irailaren 7an. Parte hartu nahi duten haur eta gazte guztiak beraien koreografiak eta emanaldiak prestatzeko aukera izango dute uztaileko egun hauetan. Festetan, guztiak emanaldi bat egingo da herriko plazan.

Diru laguntzak eskatzeko aukera GKEentzako

VILLABONA • 2008. urtean Villabonako Udalak Gobernu Kanpoko Erakundeekin emango dizkien diru-laguntza-deialdiari jarraituz, eskaerak aurkezteko epea hilaren 23an bukatuko dela jakinarazi dute Udaletik. Informazio gehiago nahi izanez gero, interesatuak harremanetan jarri daitezke Villabonako Gizarte Zerbitzuekin 943 69 39 25 telefono zenbakira deituz.

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezketeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

- **Ibarra.** Udal Kultura eta Gazteria Batzordeak San Bartolome jaien antolaketarekin jarraituz, Festa Batzordearen bilkuran parte hartzeko animatu eta gonbidatu ditu herritarrak, 20:00etan. Bilkura Udal Pleno Aretoa egingo da.
- **Tolosa.** Helduaren Astea lurremendi egoitzan: tonbolaren eguna 11:00etatik aurrera; 16:30ean lurremendi abesbatza eta 17:30ean Musika Eskolako ikasle-entzertua.
- **Tolosa.** Sanjoanetakoa koadrilen egunerako bazkarirako txartelak salgai daude eta gaur izango da azken eguna erosteko, Tolosako Meskalen, 19:30etik 20:30era.
- **Tolosa.** Hilaren 28an, 16:30ean bizikleta festa izango da Zerkausiko goiko solairuan Kilometroak 08ren alde. Izen-ematea, www.kilometroak.net, egunean bertan, kmk.ikusizunak@ikastola.net edo 688 658004 telefonoan.

Musika

- **Amezketeta.** Iban Gurrutxaga gitarra-joleak kontzertua eskainiko du beste lau musikarekin batera. Jazz-a uztartuko du, 1950. urteetik gaur egun arteko bitartekoa gehienbat. Berak sortutako musika ere entzun ahal izango da.
- **Zizurkil.** Loatzo musika eskolaren ikasturte amaierako kontzertua San Millan elizan 19:00etan.

Hitzaldiak

- **Anoeta.** Aulas Kutxak antolatuta, hitzaldia izango dute Alkartasuna biltokian. Ainaro Lopetegik emango du eta *Ongi lo egiten ahalagindu hobeto bizitzeko* da izenburua. 18:30etik aurrera izango da hitzaldia.

Irteerak

- **Villabona.** Kaxkagor elkarteak Hernaniko Aquaparkera egun pasa antolatu du Aiztondoko 12 eta 16 urte arteko gazteentzat hilaren 21ean. Izena ematea derrigorrezkoa da eta kaxkagor@hotmail.com helbidean edo 677 48 89 10 edo 636 63 86 35 zenbakietan egin daiteke.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Tolosa.** Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 654610.
- **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneri eta iritzien erantzunik.



Adimen emozionaleko materiala prestatuak

A Agurrak



Urte askoan!

Axier eta June Tejeria Larrarte. Gaur 5 urte. Zorionak aita, ama, Manex eta Amaieren partetik.

CAMBRIDGE PROFICIENCY
IN ENGLISH
CPE

elduaie
hizkuntza zentrua

IRAKASLEA:
JEREMY
BARNES
(LINGUISTA)

(Sn.Sn.
Onddarreta)

IKASTARO
TRINKOA
UZTAILEAN
GOIZEETAN
MATRIKULA
IREKITA DAGO!

DONOSTIA: Infanta Cristina Etorbidea 15, Itxas-Lore etxea, Ondarreta - Tel/Fax: 943 31 07 53 - 943 31 37 90 - INTXAURRONDO: Pedro Axular 4, Behea - Tel/Fax: 943 27 24 63 - TOLOSA: Martin Jose Iraola 8, 3-Ezk. Tel/Fax: 943 67 00 52 - 943 67 12 75 /Kondeaneko Aldapa, 30 - Tel/Fax: 943 67 47 33 / Nafarroa Etorbidea 12 entlo. Tel/Fax: 943 67 00 52 - 943 67 12 75 - LASARTE: Pablo Mutiozabal 2, 1. solairua - Tel/Fax: 943 37 27 81 - URNIETA: Dendaldegi, 6 Behea - Tel/Fax: 943 55 58 58 - VILLABONA: Kale Berria 46, 2-B - Tel/Fax: 943 69 63 73 - ALEGIA: San Juan 46 - Tel/Fax: 943 65 57 26

HEZKUNTZA • Gipuzkoako Foru Aldundiak hurrengo ikasturtean jarraituko duten adimen emozionaleko plangintza aurkeztu zuen herenegun Miramongo entzunaretoan. Tartean, ikastetxe guztietan banatuko duten adimen emozionaleko materialaren inguruan ere hitz egin zuten. Hain zuzen ere, Tolosako Hirukide eta Laskorain ikastetxeak izan dira material hori egin dutenak, eta bertako ordezkariak izan ziren, Jose Ramon Guridi (Berrikuntzako eta Jakintzaren Gizarteko Diputatu), Ana Isabel Bergara (EHUko Psikologia Fakultateko Ikasketen Dekanordea) eta Carmen Farforekin (Hezkuntza Berritzatzeko eta Irakasleen Prestakuntza Zentruko prestakuntza aholkularia) batera ekitaldian. HITZA

Ekain beltza berriarekin

eleBERRI beltzArenkin



Utzi ezinik
irakurtzeko modukoak

Lau liburu:

ekainak 7, 14, 21 eta 28



+
2,9€

